

tzutan gehiago eta beste batzutan gutxiago). Eta, hori, batua bultzatu beharra zegoela eta euskalkiak albora utzi behar zirela aldarrikatzen zen garaietan ere. Idazle bakoitzak berak uste izan duen euskara motan idazteko askatasun osoa izan du gure aldizkari honetan. Aldizkaria, ostera, euskara batuaren nahiz euskalkien arteko oreka egokiro jagoten ahalegindu da, bata bestearen kaltetan ez izateko bideak hartuz.

“Bostak bat” kultur taldeko kideok “ADOREZ” HIZTEGIAK egiten hasi ginenean, argi eta garbi ikusi genuen ezinbestekoa zela euskalkiek eskaintzen dizkiguten aberastasunak (batez ere lexiko eta egitura aldekoak) euskara batuan txertatzea. Hori zela eta oso leku zabala egin genien euskalkietan parra-parra herriak ahoan darabiltzan esamolde eta esakuneei. Eta, hori, idazki literarioetan agertu ez arren. Hori horrela, berariaz aztertu genituen euskalkiak bakoitzak berea zuen eremuan erabilera zabalekoak ziren hitzei eta egiturei gure euskarako definiziozko hiztegietan lekua eginez.

Hori horrela, euskalkietan erabiliak ziren berbek berezko duintasuna dutela uste izan dugu hasieratik. Hain zuzen ere, hori dela eta, ez diegu hitz edo esamolde horiei euskalki-markarik ezarri, hori eginez gero, erabiltzaileek, beren ezaguera-aren arabera, batzuk baztertzera edota hurbilekoak bakarrik aukeratzera jo dezaketelako. Horrela, bada, hitz eta esamoldeei (euskalki eremuan zabalak izanez gero), edozein euskalkikoak direlarik, harrera zabala egin diegu hiztegietan, edonongoak direlarik ere euskaldun guztion ondare direlako.

Euskalkien arazo hau, bestalde, sarritan bizkaieraren eremuko zat jo izan da. Hala ere, nire ustetan ez da bizkaierari bakarrik dagokiona. Asko edo gutxi, lurralde guztietan dirau pil-pilean, batzuetan hitzunen kopuru handiaren ondorioz larriagoa dela badirudi ere. Sarritan entzun izan diet Nafarroako zein Iparraldeko zenbait leku gutxiegi dutela beren eremuko hitzek eta hizkera-moldeek komunikabideetan ageri den euskaran.

tzutan gehiago eta beste batzutan gutxiago). Eta, hori, batua bultzatu beharra zegoela eta euskalkiak albora utzi behar zirela aldarrikatzen zen garaietan ere. Idazle bakoitzak berak uste izan duen euskara motan idazteko askatasun osoa izan du gure aldizkari honetan. Aldizkaria, oster, euskara batuaren nahiz euskalkien arteko oreka egokiro jagoten ahalegindu da, bata bestearen kaltetan ez izateko bideak hartuz.

“Bostak bat” kultur taldeko kideok “ADOREZ” HIZTEGIAK egiten hasi ginenean, argi eta garbi ikusi genuen ezinbestekoa zela euskalkiek eskaintzen dizkiguten aberastasunak (batez ere lexiko eta egitura aldekoak) euskara batuan txertatzea. Hori zela eta oso leku zabala egin genien euskalkietan parra-parra herriak ahoan darabiltzan esamolde eta esakuncei. Eta, hori, idazki literarioetan agertu ez arren. Hori horrela, berariaz aztertu genituen euskalkiak bakoitzak berea zuen eremuan erabilera zabalekoak ziren hitzei eta egiturei gure euskarako definiziozko hiztegieta lekua eginez.

Hori horrela, euskalkietan erabiliak ziren berbek berezko duintasuna dutela uste izan dugu hasieratik. Hain zuzen ere, hori dela eta, ez diegu hitz edo esamolde horiei euskalki-markarik ezarri, hori eginez gero, erabiltzaileek, beren ezaguera-aren arabera, batzuk baztertzera edota hurbilekoak bakarrik aukeratzera jo dezaketelako. Horrela, bada, hitz eta esamoldeei (euskalki eremuan zabalak izanez gero), edozein euskalkikoak direlarik, harrera zabala egin diegu hiztegieta, edonongoak direlarik ere euskaldun guztion ondare direlako.

Euskalkien arazo hau, bestalde, sarritan bizkaieraren eremuko zat jo izan da. Hala ere, nire ustetan ez da bizkaierari bakarrik dagokiona. Asko edo gutxi, lurralde guztietan dirau pil-pilean, batzuetan hitzunen kopuru handiaren ondorioz larriagoa dela badirudi ere. Sarritan entzun izan diet Nafarroako zein Iparraldeko zenbait leku gutxiegi dutela beren eremuko hitzek eta hizkera-moldeek komunikabideeta ageri den euskaran.

Beraz, nire gogoeta, batez ere bizkaieraren inguruan egina izan den arren, euskalki guztientzat gerta daiteke baliagarri. Egin-eginean ere, Bizkaian bertako euskalkiari gizarteko eremu ezberdinetan leku egokia emateko egiten ari diren ahalegin handiak jarraibide gerta daitezke beste eskualde batzuetarako. Beste hainbeste egin beharko lukete Lurralde ezberdinetako agintariek, udalak gidari direla, eskualde ezberdinetako euskara mintzatuaren aberastasunak jasotzeko. Horrela, tokian tokiko euskararen lekukotasun-iturri izateko behin betiko jasota izateaz gainera, egiten eta indartzen ari garen euskara batua aberasteko bide ere izan daitezke.

Azkenik, euskalkici buruzko gai hau aztertzerakoan ezinbestekoa gertatzen zaigu, hizkuntzaren bizitzan eragin nabaria duten hainbat gertakari nahiz ikuspuntu ere gogoan izatea. Beraz, lehen eta behin, gure gogoetaren oinarriko zio nagusiak jaso eta aurrez aurre jarri nahi dizkizuet, hori egin ondoren ondorio batzuk aurkeztera jotzeko asmoz.

1. AURREZ AURRE DITUGUN ERREALITATE BATZUK:

1.1. Euskara batuaren ibilbidea: Euskara batuak dagoeneko egina du, hainbatetan, bere bidea eta une honetan, irakas-kuntza eta komunikabideak tarteko direla, nahiko finkatuak ditu bere oinarriak eta eremuak. Gramatika alorrean ia osorik finkatuta dugu, eta dagoeneko bideratu du, hainbatetan, batu horrek lexiko alorra ere, Euskaltzaindiak atera berri duen lexiko-zerrendari esker. Beraz, euskalkien alde egiten diren ahaleginek ez diote inolako arriskurik ekarriko dagoeneko nahiko errotuta dugun euskara batuari.

1.2. Euskara batua euskara mintzatu bihurtu zaigu. Euskara batua, hasiera batean, euskara idatzirako egin zen. Hori iragarri eta aldarrikatu zen, behintzat, bazterretan. Horrela, euskara idatzia finkatzeko asmoz abiadan jarritako

euskara batua, bestalde, hainbatetan ahozko eguneroko komunikabide bihurtu zaigu. Mundu eskolatu moderno honetan ahozko eta idatzizko hizkuntzak elkar loturik ibiltzean nahiko laster bilakatu zaigu euskara batua komunikabide mintzatu.

Egia esan, nekez egingo genien leku eroso eta zabala euskarari telebistan, idatzizko komunikabideetan eta irakaskuntzan euskara batua idatzizko maila hutsean geratuz gero. Bestalde, gazteen artean eta euskaldun berrien artean euskara batu hori ahozko hizkuntza bakarra bilakatu da kasurik gehienetan. Horrek fenomeno berri hau oso kontuan hartuta jokatzea eskatzen du. Egia esan, oso eragin handia izango du lurralde bakoitzeko euskalkiaren bilakaeran fenomeno berri honek haiek bide berrietara bultzatuko baititu.

Beraz euskara batua idatzirako izateaz gainera ahozko komunikabide ere bihurtu zaigula kontuan dugula jokatu beharra dugu euskalkien aldeko egintzak abiabidean jartzerakoan. Esan berri dugun hau garrantzi handiko datua dela uste dut, euskara batua, euskaldun berriak ugaritzen zaizkigun neurrian, familiako edo lagunarteko harremanetara zabalduko zaigu eta. Geroago eta gehiago dira, izan ere, egun osoko harremanak —etxeakoak, lanekoak, gizartekoak— batuan burutzen dituztenak.

1.3. Irakaskuntzak eta euskaldun berriek izugarrizko eragina izango dute. Irailaren 8ko *Berriak* egunkarian (14. orr.) “*Haur bezkuntzako ikasleen ia %60k D eredua hautatu dute*” izan burua duen lana ageri zaigu eta azpigitulu modura beste hau eransten “*Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 3-5 urtekoen %59,8k hasi dute ikasturtea euskara hutsean; %9,4k gaztelania hutsean*” Jarraian, datu zehatzagoak ematerakoan, urterik urte gorantz doala D eredua (euskara hutsezkoa) edo B eredua (elebiduna) aukeratzen duten ikasleen kopurua gogoratzen zaigu. Halako hainbat ikaslek, geroago, D eredutik B eredurako bidea edota B eredutik A eredurakoa egin arren, hainbatetan ugarituz doa ikasketak euskaraz egiten dituzten

ikasleen kopurua Derrigorrezko Hezkuntzan nahiz Bigarren Hezkuntzatik gora (%28,9).

Guzti horrek, batetik, euskararen etorkizuna irakaskuntzan (guztira 287.874 ikasle) oinarrituko dela, eta, bestetik, euskara estandarrean edota euskaldun berriak deituengan oinarrituko dela adierazten du. Datu hau ere benetan kontuan hartzekoa dugu, euskalkien aldeko plangintzak egiterakoan. Eta hori, kopuru handi horri euskaldun zaharren aberastasunera erraz hurbiltzeko bideak eskaini behar dizkiegu eta.

1.4. Euskararen etorkizuna, hainbatetan, hirietan erabakiko da. Bestalde, euskararen bizitza-eremua zeharo hiritartu egin zaigu mende honen azken aldian. Euskara, mendeetan zehar tradiziozko gunetan (baserrian, itsasertzean,...) bizi izan bada ere, bizimodu modernoak zeharo aldatu ditu beraren bizitza-baldintzak. Gaur egun pertsona gehienek bizitza, batez ere populazio handia biltzen duten hirietara igaro da.

Horrez gain, ezin dugu ahaztu komunikabideek -telebistak, irratiak, internet-ek eta halakoek- muga guztiak gañditu dituztela bazter guztietara heltzea lortuz. Gizarte zeharo hiritartu batean bizi gara, bada. Horrela, baserrietan bizi direnak ere, gunek hiritartuen ezinbesteko premian aurkitzen dira eguneroko bizitza-premiei erantzuterakoan.

Horren ondorioz, Euskal Herriko biztanleriaren ehunekorik handiena Bizkaian bizi denez **euskararen etorkizuna** ere, hainbatetan, Bizkaian erabakiko da. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken hizkuntza-inkestaren ondorioetan ere hala agertzen zaigu Bilbo dela euskaldun kopuru handiena bizi deneko gunea esaterakoan.

Hala ere, euskara batuak baditu oraingoz zenbait hutsune bizitzako arlo batzutan, esaterako, haurrekin hitz egiterakoan, haserre egiteko uneetan, maitasunezko egoerak bizitzean, eta halakoetan erabili beharreko euskarari dagokienez. Egin-eginean ere guzti hori euskalkietako tradiziozko iturrietatik jaso be-

harko du. Dena den, urteak aurrera joan ahala, eta literaturan eta erabilia den adinean guzti horiei egokiro erantzuteko bideak ere egingo dituela uste dut.

Horrek ez du esan nahi, hala ere, euskararen etorkizuna “bizkaiera” euskalkiaren eremuan egingo denik. Bizkaiko Herrialdean ere, euskara batua ikasi dutenen nahiz alfabetatuak izan direnen kopurua ugaritzen den adinean, euskara batua (behar bada bizkaieraren eragin handiko batua) nagusituko da.

Hori horrela, eskualde ezberdinetan egiten den bizkaiera zokoratua izan ez dadin edota mendez mende jagon izan dituen aberastasunak alferrik gal ez daitezzen, euskaldun “zahar” alfabetatuen (euskalkia+ batua menperatzen dutenen) eta euskaldun “berri” alfabetatuen (euskara batua eta inguruko euskalkia menperatzen dutenen) artean zubi egokia egin beharra dugu, lehenan sendo oinarrituz etorkizunari bide sendoak ezartzeko.

1.5. Ezinbestekoak ditugu, era berean, esparru euskaldunak. Hizkuntzalariek dagoeneko frogatua dute hizkuntzaren bizitzan izugarrizko eragina dutela esparru edo gune elebakarrekin edo indartu nahi den hizkuntza eguneroko harreman guztietan erabiltzeko aukera eskaintzen dutenak. Halako guncak, batetik, “erreferente” bihurtzen dira gainerako hiztunentzat eta, bestetik, hizkuntzaren barne bizitzan berezko jaritasunez egoera berrietara egokitze ahalbideak gauzatzen. Gune erdalduetan interferentziak ugaritu eta hiztun elebidunek itzulpen-jokoan jarduten duten bitartean, halakoetan inguruek berak eraginda hizkuntza bakarrean bizitzea ahalbideratzen dute.

Hori horrela, benetan txalogarritzat jo behar ditugu zenbait eskualdetako udalek elkarren artean euskararen erabilerarako egiten dituzten plangintzak. Baita ere, zer esanik ez, Lurraldetako agintariek halako ekimenak bultzatzeko eskainitako laguntzak ere. Horrek historiaren haritik datozen aberastasunak gizarte modernoko premietara egokitze bide apropo-

sak eskaintzen ditu. Honelako guneak garrantzi handia izan ohi dute herri kontzientzia pizteko eta jendea hizkuntzaren erabilerara ekartzeko. Halako guneak euskalkien erabilera ugariena egiten den eskualdeetan izaterakoan, hauek indarberritzeko bide ere izan daitezke.

1.6. Euskalkien aberastasun ugariak, beraz, lehenbailehen bildu eta batuan txertatu behar dugu. Hain zuzen ere, euskarak mendez mende jagon dituen aberastasunak galdu ez ditzan. Eta hori, euskalkiak (gure kasuan bereziki bizkaiera) euskara batuaren bide nagusietatik kanpo zokoratuta eta gutxietsita geratu ez daitezen.

Honek euskalkiaren eremuan eguneroko bizitzan bizi-bizirik dirauten hitzak, esamoldeak, eta gainerako aberastasunak jaso, eta batuan txertatzeko bideak egitea eskatzen du.

Hori dela eta, euskara batuaren eragina areagotzen den neurrian batuaren eta euskalkiaren arteko beste erregistro bat izango dugunez, zuhurtzia handiz jokatu ezik, lehendik ditugun aberastasunak baztertzeko arriskua ere areagotu egingo zaigu.

Besterik ere gogora ekar daiteke (adibidez, zer dela eta egiten dien hain leku txikia idazleek euskalkiei, gure literatura lanak hain oparoak ditugun une honetan), baina, beude, gaurkoz gogoetarako gai nagusitzat aipatu berri ditudan hauek.

2. EUSKALKIEN ERABILERARAKO GOGOAN IZAN BEHARREKO ONDORIO BATZUK

Aurrekoak horrela badira ere, gaur egun, itxuraz, inoiz baino leku zabalagoa egiten diegu euskalkiei euskararen erabilpen eremu ezberdinetan. Hainbat datuk adierazten du hori. Batetik hor ditugu jardunean urteetan zehar euskalkiei leku oparoa egin izan dien zenbait herri irratik Iparraldean nahiz Hegoaldean. Horren ezaugarri ditugu, baita ere, lurralde, eskualde eta herri ezberdinetan argitaratu ohi diren aldizkariak ere.

Azken urte hauetan, era berean, aparteko hizkuntza ikerketan interesgarriak egin izan dira Euskal Herriko zenbait bazterretan euskaldun zaharren euskara mota eta lekukotasunak jasotzeko, horretarako hainbat grabaketa eginez. Hor ditugu, esaterako, Iñaki Gaminde eta Gotzon Garate ikertzaile jaunen lan ederrak. *Euskararen Atlas Linguistikoa* egiteko burututako bilketaren emaitzak ere argitaratzeko bidean ditugu. Eguneroko jokabide arrunta egin da hainbat udaletako bilertan euskaraz jardutea tokian tokiko euskara-motek aparteko lekua hartu dutelarik udaletako barruko harremanetan.

Hala ere, nire ustetan, ez da dena urregorria euskalkien erabilera horretan. Hor-hemenka zenbait gunetan ikusten ari garen zenbait joera ez direla bat ere egokiak esatera ausartuko nintzateke. Batez ere euskara idatzia ahozko jardunaren transkripzio hutsa bihurtzeko egiten hari den alferreko jarduna. Kontuan izan dezagun hizkuntzaren bizitzan, ahozkoak bere legeak dituela eta idatziak bereak! Nahasteek ez dute hizkuntza ahuldu eta galbidera bultzatu baino egiten.

Argia egiteko ez zaigu gaizki etorriko euskara batuaren eta euskalkien arteko gatazka pil-pilean ari zen unean *Karmel* aldizkari honetan *Euskara euskaldunon hizkuntza: "euskara batuari buruzko filosofia"* izenburua zuela egin nituen hausnarketa gogora ekartzea.

Orduan argitaratu nuen lantxoan, *euskara batua zer den, euskara batuari buruzko eztabaidak* zertan diren, *euskara batuaren aldeko arrazoimenduak* zeintzuk diren azaltzen saiatu eta *zein izango ote euskalkien etorkizuna* galdetu ondoren honako ondorio hau ateratzen nuen:

Hemen esandakoak irakurri ondoren, norbaitek pentsa lezake ni euskalkien kaltetan edo ari naizela. Edo eta euskalkiz mintzatzen direnak gutxien ditudala. Nik hemen euskara batua erabili arren, ez dut inoiz, adibidez, nere amak, nik baino euskara gutxiago dakienik esango, nabiz eta bera bizkaieraz mintzatu. Nabiz eta bera, ni adina jakintsu edo idazle

edo irakasle izan ez, zer ikasi ugari dut beragan, euskararen berezko jarioa eta sena nik baino hobeki zaindu duenez.

Hala ere euskara batua irakasten ari naiz Bilboko hiri ketsu erdaldun handi honetan eta bertako maisu-maistren eskolan bertako zenbait euskaldundu nabian. Eta batua irakasten ari naiz, euskara erraz irakasteko eta zabaltzeko biderik egokiena iruditzen zaidalako, eta euskaldunok, gaurko bizitza modernoaren eskabideei erantzukizuna ematekotan, hizkuntza estandar bat behar dugulako.

Nire ustez, ba, euskara batua eta euskalkiak ez daude inolaz ere elkarren aurka. Bakoitzari bere lekua zor diogu euskal mundu honetan. Bai euskara batua, bai euskalkiak gure euskara jatortu, indartu, gaztetu eta gaurkotezko erabili behar ditugu.

Euskara batu estandarrak ematen digun osotasuna euskalkien iturri jatorriko senari loturik gozatu behar dugu. denon artean euskara, gure euskara bakarra zaindu eta indartu behar dugu, inguruko erdarak gaingiturik, Euskal Herriko hizkuntza bakarra izan dadin".(Karmel, 1980-1).

Aipaturiko idazlan horri ezarritako oharrean, bestalde, gaur egun euskalkien alde lan egiterakoan gogoan izan beharko genukeen Euskaltzaindiaren testu bat ere eskaintzen nuen. Hemen jaso nahi izan dut, euskalkia erabiltzerakoan ezin dugula "zenbat aburu hainbat aburi" esaera zaharrak dioenaren arabera jokatu gogora ekartzeko. Honela dio Euskaltzaindiaren oharra:

"Tokian tokiko hizkera dakiten haur nagustei euskara batua irakastea, sarritan, ez dira oso kontutan hartu izan obi batetik besterako bidea egiteko nabitaez eman behar diren urratsak, eta ondorioz, elkar osagarri eta bizigarri izan beharko luketenok benetako zubirik gabe geratu obi dira, bion kaltetan gainera.

Pedagogiazko orientabideak ematea, Euskaltzaindiari zuzenki ez badagokio ere, auzi honek euskararen sendotzean eta bedatzean duen eraginarengatik, biziki gomendatzen du, to-

kian tokiko euskara zenbat eta urrunago gertatzen den euskara batutik, hainbat eta arreta handiagoz elkar osatze bidea zain eta lant dadin.

Azken helburu nagusi eta bakarra euskara biziaraztea, sendotzea eta hedatzea delarik, inola ere ezin pentsa daiteke tokian tokiko euskara eta euskara batua elkarren aurkako gerta litezkeenik, baizik eta bata bestearen nahitaezko osagarri eta aberasgarri direla zinez.

Hau honela delarik ere, tokian tokiko euskarak dituen desberdintasun eta ñabardurak ugari direla gogoan edukirik, lehen aipaturiko adierazpenean zioena bera berresaten du. Euskaltzaindiak, alegia, tokian tokiko euskara eta euskalkia aintzakotzat hartzean eta lantzean, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaille batetan gal ez gaitezen.

Bestalde, literatur euskalki desberdinetako ereduak ezagutzera emateko eta irakasleen eginkizuna errazteko asmoz, Euskaltzaindiak berehala ekingo dio euskalkizko idazleen antologi bat eragiteari eta argilara emateari.

Azkenik, argi eta garbi utzi nahi du Euskaltzaindiak, bere garaian harturiko erabakiak eta egindako gomendio jakinak salbu, oraindik urrats asko dagoela euskara batua burutzeko eta inork ez duela euskara batua omen delako baten monopoliorik. Beraz, idazleak eta irakasleak beren eskuko dira tradizio ongi ezagutu baten ildotik, pedagogiazko eta literatur adierazpeneko premien arabera, nork bere euskal sen hoberenaren argitan jokatzeko, euskararen funtsezko oinarri batu horrekin leialtasunean” (Euskara, 1979, separata 103 orr.).

Aurreko testu honetan argitasun-bide izan ditzakegun bi esaldi nabarmendu nahi nituzke:

- “ *hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaille batetan gal ez gaitezen.*

- *“literatur euskalki desberdinetako ereduak ezagutzera emateko”*

Arazo honi irtenbide egokia eman nahi badiogu, bada, euskara batuaren eta euskalkien arteko loturak kontuan hartuz, eta euskalki literarioak izan ditugula gogoan izanik jardun beharko dugu.

3. EUSKALKIEN ETORKIZUNERAKO IURU ARRISKU NAGUSI:

3.1. Euskalkiak ahozko mintzaira huts izatera mugatzea.

Sarritan ez zaie idatziz erabilia izateko eskubiderik aitortzen euskalkiei. Horrek, nahitaez gizarteko hainbat eremutatik kanpo uztea lekarke, besterik gabe. Aipa ditzagun, esaterako, ereduazko testuak diren elizetako irakurgaiak, zenbait udaletako jende aurreko jakinarazpenak, Aldundietatik baserritarrei bidaltzen zaizkien idazkiak,... Horiek euskara batuan bakarrik eginez gero bizitzeko bidea ukatuko litzaieke euskalkiei. Eta erabiltzen ez dena heriotzarantz doa. Etorkizun laburra izango du. Nire ustetan, euskalkiek izan dezakete leku duina idazkietan ere, baina, horretarako euskalki bakoitzaren idazkera formak taxuz ezarri gero.

Horrek euskalkiaren erabilera planteatzerakoan zuhurtzia handiz jokatzeko eskatzen du. Gure gizarte modernoan hizkuntza idatzia (hezkuntza, komunikabide eta abarretan) hain leku garrantzitsua izanik, ezinbestekotzat jotzen dut euskalki idatziari leku egokia egitea.

Hori horrela, mintzatzeko balio ez duen euskara batuak gerorik izango ez duen bezala, idatziz duintasunez erabilia izateko gai ez den euskalkiak ere nekez izango duela etorkizunik esatera ausartuko nintzateke. Eta hor, hain zuzen ere, gaur egun edozein hizkuntzaren euskarri bilakatu diren irakaskuntza eta komunikabideetatik kanpo geratuko litzatekeelako.

3.2. Euskalkiak edozein eratan idatzita erabiltzea. Eta alor hau jorratzen hasteko, lehen eta behin, ez zaidala bat ere bide zuzena iruditzen, euskalkienganako zaletasunak eraginda bada ere, erabilera idatzian ahozko euskararen transkripzio hutsa erabiltzea esan beharra dut. Zenbait aldizkarik hartu duten bide hau euskalkien kalterako dela uste dut. Hain zuzen ere, txokokeriak bultzatzen direlako eta euskalkiak alfabetatu gabeen hizkuntza bilakatuz gero guk geuk jartzen ditugulako hil zorian.

Aurkitzen da honela idatzitako testurik euskararen historian zehar, baina gizarteko jende gehienena euskaraz alfabetatu gabea zen garaietan. Ez dugu ahaztu behar, gainera, Euskaltzaindiko testuan gogoratu zaigunez, euskalki guztiek egin dutela ibilbide historikoa eta nahiko idazkera finkatuari jarraituz aritu izan direla garai ezberdinetan klasikotzat jotzen ditugun gure idazleak.

Jendearengana gehiago hurreratzeko asmoz herriko norbaiten elkarriketarik edo argitara eman behar denean edo izan ezik, kontu handiz jokatu behar dugula uste dut. Sarritan jaietako programak eta argitaratzean herriko mintzaira berezia erabiltzeko asmoak eraginda, herrian inoiz erabili ez diren berbak eta esaerak jaso izan dira. Badugu, bada, zer inausi eta, baita, zer zuzendu alor honetan!

3.3. Euskalkien tratamendua etorkizunera begira egin beharrean iraganera begira egitea. Euskara biziaren aldeko apustua egin dugunok sarri egin izan ditugu gogoetak euskalkiei buruz. Behin eta berriro itaundu diegu geure buruei nola jokatu behar dugun eskaintzen dizkiguten ñabardurak eta bizitasuna galdu gabe euskararen iraupenerako oztopo izan ez daitezen.

Hori dela eta, euskalkiak aipatzerakoan etorkizunean gure eskualdeetan jendearen artean parra-parra mintzatuko diren hizkerak aipatu nahi nituzke. Inolaz ere ez lehen nola mintza-

tzen ziren gure aurretikoak. Ez nuke nahi gure euskararen geroa iraganaren zamapean itotzerik. Sarritan lehenari indartsuegi lotzeak ez digu uzten etorkizunerantz hegaz egiten.

Guzti honen bidez euskalkien erabilerari irtenbidea emateko lanetan inoiz ahaztu beharko ez genukeen zerbait gogoratu nahi dut. Gorago aipatu dudanez, zeharo aldatu zaigu gizartea eta iraganetik argia jaso behar badugu ere, etorkizunera begira jokatu beharko genuke euskalkiei irtenbidea hilatzerakoan.

Horrek, jakina, lehenago erabiltzen ziren zenbait hitz eta esamolde alboan uztera behartuko gaitu, bai, baina ezinbestekoa dugula uste dut euskara bizirik atera nahi badugu. Aurreko hori, baserritarrek esango luketen bezala, zuhaitzari adarrak edozein modutan moztu eta hil zorian jartzea baino gehiago inausketa egokia egitea genuke.

Horrela, esate baterako, jatorriko "erreferentzialak" deritzanak galdu dituztelako gaurko gazteentzako zeharo ezezagunak gertatzen diren hainbat hitz ageri zaizkigu gure hiztegieta, gizarte moderno aldakor honetako beste zenbaiti oraindik aterik ireki ez diegun bitartean.

Horrek, jakina, euskaldun gehienok hirietan bizi garen arren euskara ez oraindik ez dela oraindik hiritartu adierazten du. Etorkizunari bide sendoak ezartzerakoan, baserri-bizitzako tradiziozko hainbat hitzek lekua egin beharko die hirietako premia berrien eskariei aurre egiteko behar ditugunei. Badugu, beraz, zer aztertu eta zuzendu garbizaleak izan ohi garen euskaldun zaharrok inguruko hizkuntzetatik hartu beharreko maila leguei leku egokia egiteko ere. Horrek ahalegin handi bat egitea eskatuko digu, umeek eskoletan ikasten dituzten berba asko guk ere ikasi beharko ditugulako.

Eta hori horrela den bitartean, lehenagoko hitz multzo handi bat betiko ilunpera joan beharko dute gure bizitzako premiak aldatu direlako. Aldaketa horrek, dudarik gabe, saminezko urraketak sortuko dizkigu, batez ere, euskaldun zaharroi.

Bestalde, euskalkiek eta euskara batuak elkarri eskua estuki eskainita jardun behar dutela uste dut. Etorkizunean euskaldun izango ditugun gazteak alfabetatuak izango dira eta bizitzako alor gehienetan euskara batua erabiliko dute. Are gehiago Lurralde ezberdinetako euskaldunen arteko harremanak ugartzen diren adinean.

Hori dela eta, euskalki ezberdinetarako neurriak (bereziki idatzirako) hartzerakoan ahalegin bat egin beharko genuke gure haurrei zama astunegirik ez ezartzeko. Zenbait lekutan egitiko saioetan frogatzen ari da ortografia akatsak kontuan hartu ezkerro bizkaiera idaztean askoz akats gehiago egiten dituztela gazteek euskara batuan baino.

Hori horrela, erraztasunak eskaini behar dizkiegu euskalki-ko formen eta batukoen artean alde txikiak daudenean batuko formaren alde aukera eginez. Gehiago, oraindik, euskalki barruan ahozko aldaki bat baino gehiago dugunean. Ahalik eta araurik errazenak ezartzen saiatu behar dugu. Ez dezagun ahaztu euskalkien muina eta aberastasunak batez ere egituretan eta esaldi lexikaletan ditugula.

Euskarak, nire irudiko, makulu bi ditu hiztunen kopuru txikiak agertzen duen ahultasunean aurrera egiteko: euskara batua eta euskalkia. Bata nahiz bestea baztertuz gero, nekez egingo du aurrera. Batak bestearen premia du eta oreka lortu behar dugu indarrak parekatuz heriotza-arriskutik ihes egiteko. Adituek diotenez hainbeste hizkuntza betiko galduko diren mende honetan tentuz jokatu beharra dugu.

Euskarak etorkizuna ziurtatzeko gaur egun euskara batua edo estandarra nahitaez behar duenez, indartu ditzagun euskalkiak ere beraren babespean. Horrela euskara batuaren abar- roan luzaroan irauteko eta euskara batu hori aberastuz joateko aukerak ugarituko ditugu. Ez, oster, batzen gaituztenetan elkar sendotzeko jardun beharrean hereizten gaituztenetan indarrak jarritz jokatzeko baldin badugu.

4. BIZKAIERAREN INGURUAN GOGOETA EGITEKO IRADOKIZUN BATZUK.

Gorago aipatu izan dut, azken urte hauetan lan ugari egin dela euskalkien arazoari irtenbide sakona bilatzeko. Ahalegin horiek batez ere Bizkaian nabaritu izan dira. Lan oparoa burutu da bai ikerketari dagokion eremuetan (hainbat udaletako euskararen monografiak argitaratu dira) bai euskalkiaren erabilerari dagokionean. Txalogarriak ez ezik eredu-bide ere izan dira bertako agintariak horretan diharduten pertsona eta talde ezberdinei eskainitako babesa eta laguntza.

Bizkaieraren aldeko ahalegin horietan ezin aipatu gabe utzi *Labayru ikastetxea*. Derioko seminarioaren babespean sortu eta indartutako erakunde honek Bizkai osora zabaldu ditu bere erroak. Horrela, agintarien babespean, bizkaiera idatziaren normalizaziorako garrantzi handikoak izan daitezkeen bi liburu argitaratu ditu: *Bizkai euskararen jarraibide liburua – lehenengo pausuak* (Bilbon, 2001) eta *Labayru Hiztegia – Bizkaiera eta Batua (b)uztarturik* (Bilbon, 2003).

“Mendebalde” kultur taldea ere buru-belarri aritu izan zaigu azken urteotan bizkaieraren inguruan gogoetak egin eta ikerlan ugari plazaratzen. Urtero maiatzean antolatu izaten dituen jardunaldiak hizkuntzaren hausnarketarako bide onuragarri gertatzen ari dira. Lan oparoa egiten dihardu talde honek ere.

“Bostak bat” kultur elkarteko kideok ere hainbat hausnarketa egin ditugu euskalkiek, ez bakarrik bizkaierak, hiztegieta izan behar duten lekua argitzen nahiz euskalkien eremuko lexiko-aberastasunak hiltzen eta zabaltzen. Bizkaieraren eremuko hitzek nahiz esamoldeek leku zabala izan dute gure taldeak egin eta argitaratutako hiztegieta.

“EGUNKARIAK” ere bizkaierako gehigarria argitaratzea erabakitzerakoan urrats handi bat eman zuen irakurtzeko material pilo galanta jendearen esku jarritz. Bizkaieraz idatzitako orriek geroago eta eragin handiagoa egiten ari ziren. Idazteko hiz-

kuntza-eredu baterako ildoak urratzen ziharduen Madrileko epaileek ixtera behartu zutenean.

Hor dugu, bestalde, askok uste duten baino eredu ederra-goia liturgiarako euskaratu izan diren Bibliako irakurgaietan ere. Lehen esan bezala, *Karmel* aldizkari honetan, irratietan eta beste zenbait komunikabidetan eginiko ahaleginak ere ez dira ahuntzaren gauerdiko eztul-hotsak izan. Guzti horren ondorio izan da une honetan abiabidean jarri izan den bizkaiera batua edo dena delakoa.

Beraz, bizkaiera, gaurko gizarte modernoan, euskara idatzia-aren eremuan statusa lortzen ari dela esan dezakegu. Asko egin da eta laster nahiko finkatua izango dugu bizkaieraren idazkera modernoa.

Hori horrela, iradokizun batzuk plazaratu nahi nituzke gure euskalkiaren gerorako onuragarriak izango direlakoan. Honako hauek dituzue:

4.1. Morfologia:

-Izenaren deklinabidea:

([a] + [a] = ea): ez deritzat bat ere egokia [a] itsatsia dutenentzat proposatu den formula honi. Eta hori hurrengo hauen-gatik:

- Formula hori Bizkaiko literatura idatzian erabilia izan bada ere, ez da batasun osorik egon. Bestalde, une honetan, euskalki barruko eskualde mugatu batean baino ez da horrela erabiltzen. Erabilpenari begiratzuz askoz ere zabalagoa litzateke zenbaitek proposatzen duten [ia]. Nire iritziz baturako hartu den forma berdina hartu beharko genuke bizkaiera idatzirako nahiz eta ahozkoan aldagai ugari [-ea, -ia, -ie, -i] erabili.

- Horrela jokatzuz desitxuratu egiten dira [-a] itsatsia duten hainbat euskal atzizki [-gintza, -era/-kera, -keta, -ada/kada, -tza, -kuntza, -tura/dura]. Honelako atzizki batzuk, gainera,

oso erabiliak dira bizkaieraz. Hortik, bada, hau argitzeak duen garrantzia. Esaterako [-tza] atzizkiaren kasuan, nahasterik ere sor daiteke [-tzea] izen bihurtutako aditzarekin formekin.

- Hitzak, bestalde, inolako aldaketarik gabe agertzen zaizkigu: 1) artikularen ordeztze besterik gabe mugatzaile dutenean (zenbakiak, barik...). 2) hitzaren eta mugatzailearen artean beste zerbait (esaterako adjektiboa) tartekatzeak mugatzailea atzeratzea dakarrenean. 3) partitiboa erabiltzen denean,... 4) toki-deklinabidea erabiltzerakoan. Horrelako kasuetan, hitzak aldaketarik gabe agertzen zaizkigunez badakigu zein den jatorriko forma (hamar *korta* /zenbait *korta* /*korta* barik; *korta* eta sabaia; *korta* barria; ez du *kortarik*; *kortan*, *kortatik*,...). Zertarako izenaren deklinabidean batzuetan **korta** eta beste batzuetan **kortea/korteari**,... erabili? Ez ote da hobeto batuan erabiltzen den moduan beti **korta** erabiltzea? Tradizio handiko hitzen batetan (*euskerea*, *heriotzea?*, *bizitzea?*, *ardurea*, *obiturea*,...) salbuespena egin behar bada, egin bedi, baina deklinabiderako arau orokorrak bat berbera izan beharko luke batuaraz eta bizkaieraz. Dagoeneko ikusi izan ditugu akats larri batzuk hor-hemenka zabaltzen, hots, hitzaren erroa mugatzailea kenduz lortzen dela [*zubaitz(-a)*, *etxe(-a)*, *mutik(-a)*...] kontuan hartuz, *ikastole/ikastoli bat* eta horrelakoak...

- Larriago iruditzen zait aurreko formula hori hitz maileguen kasuan, batez ere zientzia alorrekoetan erabiltzea. Ez zait bat ere zuzena iruditzen irakaskuntzako testuetan, batean *kima/fisika*, *matematika*, *aritmetika*... eta bestean *kimikea/fisikea*, *matimatikea*, *aritmetikea*... erabiltzea. Ez ote da hori euskalki idatzia behar duen duintasunezko maila gutxiestea eta alferrezko zailtasunak sortzea? Ez ote genduke asko erraztuko mailegu guztiak forma bakarrean hartzea baturako zein bizkaierarako.

Ondorioa: [-a] itsatsiaren kasu guztietan [-a + -a = a] erabiltzearen aldekoa naiz. Arau erraza izateaz aparte, nahaste asko aldenduko lituzke eta bizkaierari zor zaion goi maila emango

lioike. **Formula hau, gutxienez, atzizkia duten hitzetan eta hitz maileguen kasuetan onartu beharko litzateke.**

[-zino] bukaeraren kasuan ere **[-zio]** erabiltzearen aldekoa naiz. Hala ere ez dut hain larria ikusten honek sortutako arazoa oso gutxi direlako amaiera hori duten hitzak. Dena dela, nire ustetan, erraztu egingo luke batuan heziketa jasotzen dutenak bizkaierara erakartzea.

Azkenik aurreko lerroetan egin ditudan iradokizun edo proposamenen euskarritzat Lino Akesoloren testuetan (bizkaieraz idatzitakoetan bakarrik) eta Elizako irakurgaietan jasotako hurrengo datu hauek eskaintzen dizkizuet esandakoaren argibide modura. Antzerako zerbait egin beharko litzateke Eusebio Erkiagaren lanetan ere, L. Akesolorekin batera bera baitugu azken mende erdiko lekukorik fidagarrienetarikoa. Datuak gehiago sakondu behar badira ere hemen dituzue lagin modura.

Akesoloren bizkaierazko testuetan erabiltzen diren atzizkidun hitzak zenbakitan (2)

Atzizkia	guztira	a+a=a	a+a:ea	Atzizkia	guztira	a+a=a	-ea
-tza	341	178	48 (2)	-tura	289	33	16 (1)
-kuntza	308	133	9 (2)	-keta	138	24	0
-gintza	154	46	8	-era	1.534	229	321 (3)
-kada	104	2	17	-kera	76	20	22 (3)
-ada	68	13	18	-tura	289	33	16
-dura	266	150	44 (1)	-zio	zio: 384	ziño: 41	zino: 3

(1) ardura: 147 / ardurea: 44; oitura: 87 / oiturea: 20; literatura: 194 / literaturea: 1

(2) eriotza: 53 / eriotzea: 55; izkuntza: 221 / izkuntzea: 4

(3) euskera: 211 / euskerea: 291 (guztira: 1481); aukera: 84 / aukerea: 20; ardura: 147 / ardurea: 4

Elizako bizkaierazko testuetan erabiltzen diren atzizkidun hitzak zenbakitan

Atzizkia	guztira	a+a=a	a+a:ea	Atzizkia	guztira	a+a=a	-ea
-tza (1)	788	158	82	-keta	805	8	10
-kuntza	114	42	0	-kera	3.876	1	15
-gintza	265	6	0	-era	1.655	71	7
kada	161	20	18	-bera (1)	32	-	-
da/kada	161	26	24				
-dura/-tura	210	57	82	-zio	zio: 0	ziño: 11	ziño: 8

(1) eriotza:281 / eriotzea:269; bizitza:27 / bizitzea:28

(2) ardura:43 / ardurea: 68; oitura:14 / oiturea:10

(3) [-bera] atzizkia *onbera* (32) hitzean bakarrik ageri da, eta [kadea] forma *agin-karraskadea* (18) hitzean

Aditzaren jokia: Bizkaieraz dugun arazorik handienetarikoa, euskalkiaren eremu barruan aditz forma ezberdinak izatea dugu. Jakitunen arabera, batetik, klasikoek eta erabiltzen duten forma zaharrak (batuko zenbait formetatik nahiko hurbilekoa) eta forma berriak. Honek zailtasunak sortzen ditu idatzirako bideak hartzerakoan.

Ez natorrenez bat, aditzaren inguruan hartu diren arau batzuekin, hurrengo irtenbide hauek proposatzera ausartzen naiz:

- **Aditz-joko bakarra hartzea, eta batuko aditz formarik hurbilena aukeratzea.** Nire ustez aditz-jokoaren alor honetan forma bakarraren alde egin beharra dago. Ezin du euskalki idatziak benetako indarrak hartu forma bat baino gehiago erabiliz. Aditz batua hartzerakoan ere bakar bat hartu behar izan da. Bikoizketa, gehienez ere, zabalena hartu ondoren eskualde zehatz bateko azpieuskalkirako utzi beharko litzateke. Nola jokatu, bestela, esate baterako, bizkaieraren eremu osorako diren eskola-testuetan eta komunikabideetan? Aukeraketa egiterakoan gure idazle klasikoek gehien erabiltzen dituzten for-

mak (batutik hurbilenak) hartuko nituzke, bizkaiera ikasi nahi dutenek erraztasunik handiena izan dezaten.

- [-au / -atu] aditzetan forma bukatuen kasuan zer egin? Ez deritzot bide egokia gaztelaniazko [-ado] mailegutik eratorritako aditzaren forma bukatuan euskara baturako hartutako [-atu] erabili beharrean [-au] erabiltzea, ahozkoan horrela egiten den arren. Ez nuke gaztelaniazko [-ido] amaieratik datorren [-idu] formarik ere erabiliko.

- [-tzen/-ten /-tan/-etan ala -tuten]. Aditz-forma ez bukatuetan baztertu egingo nuke [-tuten] forma. Orain arte idazle gehienek artean hala jokatu izan da. Idazleen artean nahiko ongi bereizketa ageri den arren, ahozko bizkaieran nahikoa nahaste ageri zaigu, forma bukatu askori [-ten] gehituz [tu+ten] egiteko ohitura nahikoa hedatuta baitago. Egokiago iruditzen zait baturako zein bizkaierako formala berbera erabiltzea. Honetan salbuespenik egiterakoan aditz-forman azken hizkia [a, e, o, -] dutenak eta azken hizkia [i] izan eta galtzerakoan [r+te, l+te] osotzen duten kasuak jarriko nituzke: jote, betete, adierazote, *aterate*, *botate*, *jaiote*, *jasote*, *ilte*,... Horiekin batera, behar bada, *bizite* eta *eukite*, *jagite*,... Azken kasu honetan ahozkatzearen zailtasunak eskatutako zerbait genuke.

Gorago aipatu dudan *Bizkai euskeraren jarraibide liburuan* (238. orr.), besteak beste, honako hau ageri da

- 1. Partizipio burutuak:

“-AU amaieradunak

Horreek be erromantzetik eratorritakoak dira: (ADU>AU). Euskera zaharrean: *errezadu*, *pentsadu*... egiten ziran aditzak aspaldirik -au egiten dira. Halan:

aparau, errezau, ezkutau, harrapau, izendau, kantsau, konbrau, miazkau, nahastau, olgau, pagau, pasau...

Euskera batuan, bizkaierazko -AU eta -IDU atzizkien lekuan -ATU eta -ITU finkatu dira, eta azken hamarkadotan, ba-

tuari hurreratu guran edo, bizkai euskeran be joera horri jarraitu izan jako gehienbat. Gaur egun, oster, bizkai euskeraren bereizgarri diran -AU eta -IDU amaierak hobestearen aldeko jarrera nagusitzen doa.

-IDU amaieradunak (-ITU>-IDU) erromantzetik eratorritako aditzak dira: *abrozidu, leidu, eskribidu, korridu, hornidu, sufridu, zerbidu...* Moltso horretakoa dogu *koiu* aditza, bilakera berezia izan badau be.”

AHOZ: *pentsa, kanta, saka, akorda* / **IDATZI:** *pentsau, kantau, sakatu, akordau.*

1. Partizipio burutuak:

Joko-forma honetan nahaste gehiago ageri da: [-ten] egiten duten aditzei buruzko planteamendua egin ondoren, nahiko ilun ageri da [-tzen; -etan/-tan; -tuten] egiten duten aditzei dagokien arloa. Nire ustetan, [-tuten] erabiltzekotan salbuespen modura aditz berezi batzuetarako bakarrik proposatu beharko litzateke. Esaterako *piztuten* (piztu+ten), *hustuten* (hustu+ten), *abaztuten* (ahaztu+ten), *abroziduten* (abrozidu+ten), ...

Arazo honi buruz, hurrengo laukietan datu adierazgarriak ikus ditzakegu. Bertan ageri denez, L. Akesolok eta Elizako testuak ez datoz bat [-atu/-au] aditz bukatuen forma erabiltzerakoan. Hori horrela, behar bada, kontuan hartu behar dugu Elizako testuak ahozko hizkeratik hurbilagokoak direla, eliztarek elizkizunetan entzunez jasotzekoak direlako.

	-tzen	-ten	-sten	-zten	-rten	-lten	-tuten	-atu	-au
L. Akesolo (1)	636	303	237	51	342	116	197	2.714	0
Elizako testua	5.160	5.136	1.270	354	520	340	172	(2)	(2)

(1) Batez ere silaba bakarrekotan eta bikoetan erabiltzen du [-tute]: *biztute*:12/-tze:1; *poztute*:3/-tze:0; *aitute*:6/-tze:1; *lotute*:6/-tze:3,... hala ere *artzen*:213/-tute:2; *batute*:4/-tze:22; *artute*:3/-tze:296 edota *biurtute*:3/-tze:32; *ulerute*:3/-tze:61. [-tan/-etan] kasuak gutxi batzuk baino ez dira: *Salbetan*:53; *gol-daketan*:8.

Honako zerrenda hau eskaintzen dizuet datu zehatzagoak izan ditzazuen goian proposatu den irtenbiderako: *irakurte*: 49/-tze:21; *etorte*:44/-tze:3; *ekarte*:87/-tze:1; *jarte*:57/-tze:13; *iragarte*:26/-tze:0; *igarte*:1/-tze:2; *ezarte*:43/-tze:4; *betete*:20/-tze:4; *jote*:96/-tze:1; *aterale*:176/-tze:10; *botate*:32/-tze:4; *jaso-le*:28/tze:8. Ahozkatzeak eskatutako kasuak genituzke: *eukite*:53/-tze:0; *jazte*:21; *bizite*:27/-tze:12 eta *ilte*:82 /-tze: 8

Testuan ez du [-au] formarik erabiltzen. Beraz, berarentzat forma bukatu idatzian [-tu] duten aditzak ez dute [-au] egiten.

(2) Elizako testuetan hurrengo adibide hauek baino ez ditut hartu: *salbau*:332 / *salbatu*: 42; *ezkutatu*:64 / *ezkutau*:12; *tentatu*:17 / *tentau*:7; *asmatu*:5 / *asmau*:23.

Goian ageri diren 172 [-tute] guztien artean, bestalde, 108 kasu honakoak dira: 45 *biztute*, 51 *poztute* (22 *pozte*), 7 *aaztute* eta 5 *loitute* (7 *loitze*). Beraz oso gutxi dira [-tute] erabiltzen aditzak. Horrela 45 aldiz *biztute* etorri arren 28 *berbizte* ageri dira; behin ere, ez *berbiztute*. Ikusten denez silaba batekoa edo bikoa izateak sortzen duen kontua dugu.

Honetan aipaturiko liburuan azalpenak eta ongi badatoz ere, nahaste handiegia ikusten dut. Gorago esan den moduan, arau errazagoak behar genituzke eman jendeak berehala ikas ditzan. Eta salbuespenik egin behar bada (horretan jarriko nuke **-tan/-etan** era hartzen duten aditzen kontua) argi jarri noiz erabiltzen diren horrelako formak.

4.2. Lexikoa:

Gorago aipatu dudanez, LABAYRU ikastegiak argitaratu berri du aurten "*Labayru Hiztegia: bizkaiera eta batua (b)uzterturik* (euskara-gaztelania)" hiztegia. Izenburuak berak aditzera eman nahi duenez euskara batuaren eta bizkaieraren artean zubia egitera datorkizu.

Liburuaren aurkezpenean, besteak beste, honako hauek irakurtzen ditugu:

"Mendebaldeko euskara, bizkaiera obi deritzana, aintzat harturik egiten den ahalegina da, bizkaierarekin euskara ba-

tuaren barruko lokarriak sendoagotzeko asmo zindoaz. Holako saiaketarik ez da egin orain artean; ez behintzat, bizkai euskararei, eredu literario gisa, ezaguera aitorturik”.

(...)Literatura tradizioaren, klasiko zahar eta modernoen erakusgarri ona ere bada: idazle zahar eta berriago onenen bizkera-ekarririk ederrenak jasorik dakartza, egungo biztunen beharretara egokiturik

Beraz, gaurko biztunen premia eta eskarietara hobendua da, euskaldunzahar eta berriak gogoan direla ondua: euskaldun guztiei zuzendua berez, eta Bizkaiko eta mendebaldekoiei berariaz”.

Nik hiztegi hori osorik eta sakon aztertu ez badut ere, honelako ekarpen hauek nabarmendu nahi nituzke:

- Euskaltzaindiak baturako onartutako lexiko osoa jasotzen du.
- Esaldi pila izugarria eskaintzen du. Adibide guzti horiek oso aberats egiten dute hiztegi hau. Behar bada, gehiago tartekatu behar zituen euskara batuko adibideak zubi zabalagoa egiteko.
- Definiziozko hiztegia ez denez, gaztelaniazko parekidea emateaz gainera nolabait euskal hitzen esanahia egokiro zehazteko sinonimoak erabiltzen ditu. Honetan ere oso aberatsa.
- Material bilketa oso handia ageri da bertan, eta lexikologia alorreko hainbat lanetarako baliabideak eskaintzen ditu.
- Sarrerei dagokienez lehentasun osoa ematen die bizkaierakoei, nahiz eta gero barruan letra larriz batuko forma eskaini.
- Argi nabari dira azken urte hauetan plazaratu diren hiztegietatik hartutako ekarpenak ere. Hala ere, esan den bezala, adibideetan bizkaierako esamolde multzo handia biltzeak aparteko berezitasuna ematen dio.

- Oraindik euskaratik gaztelaniarako aldea baino argitaratu ez dutenez hanka labur geratzen zaigu, gure premiarik handiena, zoritxarrez, gaztelanitik euskarara izaten direlako.

Lan txiki bat egiteko asmoz hasitako hau luzatu egin zait, ustekabean. Oso-osorik beteko dira nire asmoak zuek ere go-goeta egiteko bide izanez gero.

Patxi Uribarren Leturiaga